

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



BERTAKO SAGARRA, INOIZ BAINO GEHIAGO

Txotx denboraldi berria abiatu da, inoizko sagar bilketa handienarekin. Sektorea estrategia aldaketan murgilduta dago, etorkizuna irabazteko / 2-5

GORKA DE MATEO

Jokin Lizeaga

Urnietako mendi lasterkaria, luze eta zabal, denboraldi berriaren atarian / 10

**Puska biltzea,
Axerien eskutik.
Aurtengoan,
Sorabillako etxe eta
baserrietan barna / 16**

**Pirritx, Porrotx eta
Marimotots pailazoez
ikuskizun berriena
eskainiko dute
Basteron / 7**

EGAPE IKASTOLA
BIZITZARAKO HEZKUNTZA

**MATRIKULA
ZABALIK!!**
URTARRILAREN 29tik
OTSAILAREN 9ra

BILERAK 2 URTEkoentzat
Urtarrilak 25, Etxeberri Plaza, 17:00
BILERAK DBHkoentzat
Urtarrilak 22, Azkorte, 17:00

www.egape.org / www.egapebhi.org

"Sektorea indartsu eta aldaketarako prest dago"

AMAIA ZUBELDIA GIPUZKOAKO SAGARDOGILEEN ELKARTEA

Garai berrietara egokitzeko lanean ari dira sagardogileak, beti ere tradizioari muzinik egin gabe. Baserria eta familia negozioaren erdigunean daude, oraindik ere

Garaien aldaketan, aldaketa ugari ematen ari dira ekoizleen baitan. Gipuzkoako Sagardogileen elkarteak estrategia berri-tzailea du, kalitatea edota nazioartekotzea ardatz hartuta.

Sektorea 2018an indartsu dagoela esan al daiteke?

Bai, indartsu eta aldaketarako prest. Garaiak aldatuz doazen kontzientzia hartu dute. Egokitzten ari dira. Garai batean beste modu batean lan egiten zen, txotxak arrakasta izan du baina berrikuntzak egin behar dira eta alde horretatik sektorean apustu handia egiteko prest daude.

Zuek bideratu duzue ikuspegi aldaketa, ala alderantziz izan da?

Denon artean iritsi gara egoera honetara. 40 kide gara Gipuzkoan. Guk zerbitzu ezberdinak eskaintzen dizkiegu eta harreman horretan behar zehatzak antzeman dira. Estrategia aldaketa bi ataletan oinarritzen da: produktua eta restaurazioa.

Garaiak aldatu direla diozu. Zeintzuk dira joera berri horiek?

Bezero mota, adibidez. Garai batean gizona bakarrik joaten zen sagardotegira, astean hiru edo lau alditan. Familiak, bikoteak, turistak... bezero mota aldatu da eta horrek zerbitzuen eta produktuen osagarritasuna



Amaita Zubeldia andoaindarra Sagardogileen elkarteko kidea da. GORKA DE MATEO

ekarri du. Aipagarria den beste joera berria sagardotegira joateko eguna da. Asteaz zehar mugimendua jaitsi egin da sagardotegietan, eta asteburuetan berriz bazkariak nabarmen igo dira. Eskaerak ere aldatu egin dira. Lehen bakoitza bere ibilgailuan joaten zen, orain garrabiobidea eskaintzen zaie.

Garai berriak datoz, baina baserria eta familia ezinbesteko dira sagardotegi baten gidaritzan lanean.

Nekazal ustiapen bat da, eta negozio familiarra: Sagardotegia hori da. Bi horiek gabe aurrera egitea zaila da, ez ginateke sagardotegi baten aurrean egongo. Produktuan dago negozioaren oinarria. Artisau lana da, bertako sagastiekin eta bertako sagarrarekin egindakoa.

Kalitatearen aldeko apustu sendoa egiten ari zarete azken urteotan.

Eusko Labelarekin hasi ginen, eta Euskal Sagardoa Jatorri Deitura marka lortzea izan da hurrengo urratsa. Bertako sagardoa eta kalitatezkoa lortzea, horixe da sagardotegien egungo erronka nagusia.

Eta zeintzu dira abantailak ekoizlearentzat?

Jatorri izendapenak Europa mailan ospe handia du. Ezaguna da, eta aitortza bat dago zigilu horren baitan. Bezeroari konfiantza eragiten dio, erosketarako egiteko orduan. Bestalde, ekoizleari produktua modu kontrolatuan eta arautuan lan egiteko aukera ematen dio. Kontrol lanak, gainera, ekoizpen prozesu osoari eragiten dio.

Sagardozaleari ere bogan dagoen 'esperientzia' eskaini nahi zaio.

Bertakoek akaso barneratuta daukate, baina sagardoaren kultura urrunekoa zaionari sagardoa, sagastia edota baserria nondik datozen adierazi behar

zaizkio. Euskal kulturaren eta nortasunaren ikur dira. Produktua nola egiten dugun erakutsiz, produktua bera balioan jartzen ari gara. Jateaz eta edateaz gain, orain esperientzia oso bat eskaini geniezaioke bezeroari: sagarrak bildu, ekoizpenean parte hartu, dastaketa saioak egin...

Sagardotegia turismo sektorerako egokitzeko laguntza eskaintzea gure zereginetako da.

Txikitik handira enbidoa jo behar baduzue, kanpora begira aliantzak beharrezko izango dira, zeren eta euskal sagardoa ez da hemendik kanpo oso ezaguna.

Beharra handia da. Estatu mailan sagardoa asturiarra ezaguna da, gurea ez. Hona etortzen diren turistak, sagardotegia ezagutzeko, harrizta uzten ditugu. Administrazioarekin batera hori indartzea gure erronkatarako da. Nazioartekotze egitasmoetan egon nahiko genuke.

Bertako eragileekin ere ari gara lanean, Albalarekin adibidez. Euren proiektua mundu zabalean zabaltzen ari dira, eta gurearekin zerikusia badu. Museoan atal bat sagardoari eskaini diote, Terranovara zihoazen arrantzaleen edaria sagardoa baitzen. Aliantza horrek elkarrekin mundu zabalean ezagutzera emateko aukera ematen digu. Albalarekin batera, esaterako, Britainiako itsas jaialdian sagardoa promozionatzen izan ginen iaz.

EDARIAREN JATORRI IZENDAPENAK EUROPA MAILAN OSPE HANDIA DU

LARRE-GAIN
TOLAKO SAGARDOTEGIA

Ereñozu auzoa, z/g
HERNANI
943 55 58 46
616 287 867
larre-gain@larre-gain.com

Petritegi

Petritegi bidea, 8 Astigarraga
943 457 188
reservas@petritegi.com
www.petritegi.eus

GAZTANAGA
SAGARDOTEGIA

Irurain etxea
Buruntza auzoa
ANDOAIN
943 59 19 68
www.sidreriagaztanaga.com

Sagardoa eta bertsoa, ogibide eta pasioa

UNAI AGIRRE EUSKAL SAGARDOA JATORRI DEITURAKO KOORDINATZAILEA
Aurtengo txotx denboraldiko uzta lehen eskutik ezagutzen du. Euskal Herriko bertsolari txapelketa nagusiko protagonista izanda, askoren estimazioa irabazi du

Etokizunera begira datu esanguratsua bota du: Gipuzkoan, azken bi urtetan, 47 sagasti hektarea berri landatu dira, datu handia da inondik inora. Hektarea berri horiek hemendik 8-9 urterara ekoizpenean sartuko dira, kalitatezko sagardoari bultzada emanez.

Aurtengoa, uzta historikoa izan dela diozue...

Holako uztarik ez dut ezagutu, handia izan da! 2008 eta 2015ekoak ere itzelak izan ziren, baina ez honen adinakoak. Horrek erakusten digu, batetik, noizbehinka antzeko uzta historikoetara ohitu beharko garela. Eta aldi berean, erakusten digu sagardogileak sagarra asko ari direla landatzen, eta dena ekoizpenean sartzen ari direla. Euskal Herrian aurtengoa hamabi milioi eta erdi litro sagardo egin badira, %80a bertako sagarrarekin egin da. Izugarritzko datua da hori.

Gainera, Jatorri Deituraren ikuspegitik, esan daiteke hamabi milio horietatik lau milioi jatorrizkoak direla. Bigarrego uzta izan da hau; aurrenekoan, 1.320.000 ekoiztu ziren. Ez da ahaztu behar sagar guztiek ez dutela balio, nahiz bertakoak izan. Kontrola eta kalitatea aplikatu behar zaie.



Sagardoa eta bertsoa, biak bat biltzen dira Unai Agirrerengan. AIURRI

Kalitatea goiburuan daukazue. Uztargarriak dira kalitatea eta herrietan eta auzoetan azken urtetan zabaldu diren sagardo txapelketak, dastaketak edota jaiak.?

Bere garaian, sagardo dastaketak eta lehiaketak sagardogileek beraiek bultzatu izan zituzten, eta mesedegarriak gertatu ziren sagardoaren kultura zabaltzeko. Baina iruditzen zait, gaur egun hausnarketa baten premian garelako guztiok ere. Jai horietako batzuk –Urnietan usadiozko sagardoarekin egiten dena Santomasetan, konparazio batera oso egokiak eta babestekoak dira, baina beste batzuk akaso ez diote produktuari behar adina balore ematen. Jaien antolatzailerak eta sagardogileak, denok elkarrekin mintzatzeko tartea topatu beharko genuke.

Sagardoaren denboraldi berriko kontuek bat egin dute BECKEKO finalarekin eta bere ondorioekin. Zenbat aldatu zaizu bizimodua bertsolari gisa?

Azken aldian gehiago azaldu da nire burua plazatan, intentsitate berezia antzeman dut. Oparia izan da finala niretzat, eta ongi-etorriak dira kantatzeko jasotzen ditudan deiak. Uinari zukua ateratzen saiatuko naiz. Baina ez nuke esango egoerak aldatu nauenik. Badakit arintzen joango dela oraingo zurrumbilao, eta kontzientzia naiz plazatan ibiltzeko nire neurria ondo hartuta daukadala. Familia eta lanbidea dauzkat, eta horiek ezin ditut ahaztu.

Finalean sartu izanak, jendearen ahotan bereziki egotea ekarri zizun... Kale mailan bai! Biribila, polita izan da Hernaniko bertso eskolako kideentzat. Lau kide, finalean! Gainera, bi hernaniar

bertan izateagatik, nabaritu dut ondorengo asteetako zurrumbilao hori. Ezin kalean lasai ibiltzerik!

Mendiluze eta biak hamar urte besterik ez zenutenean hasi zineten elkarrekin plazan kantari. Ez al zaizu iruditzen txapelketak balio izan duela zuek biek bertsozale ugariren estimazioa lortzeko?

Nik pertsonalki ez du horrela bizi. Behin finalera iritsita, egia izan liteke pixka bat jendearen begien aurrean jarri naizela, "hau ere hor zego!" esateko moduan. Baina iruditzen zait erlatibizatzen jakin behar dela une jakin batean lortu litekeen oihartzuna. Aitorren kasuan, ordea, ez dut ukatuko deskubritze kontu horretatik zerbait gertatu ez denik. Bertsoaren mundukook bagenekien Aitor bertsolari puskala dela, baina ematen du orain kontsagratu egin dela, jende asko jarri baitu, "hau oso handia da!" esaka.

Ba al daukazu bertso saiorik eskualdean, epe laburrean?

Gogoan dudala, gutxienez bi bertso saio behintzat bai. Datoren urtarrilaren 28an Aitor Mendiluze eta biok ENBA basteritarren sindikatuarekin kantatzekoak gara Urnietan; eguerdi parteko ekitaldian lehenbizi, eta Eula sagardotegian bazkaritan gero. Sahararen alde Andoaingo Basteron egiten den saiorako ere konpromisoa hartuta daukat.

EKOIZPEN OSOAREN %80A BERTAKO SAGARRAREKIN EGIN DA. IZUGARRIZKO DATUA DA HORI



Sagasti, sagardotegi eta sagardo gehiago

Euskal Sagardoa jatorri deituraren bigarren uztu kupeletan dago jada, eta txotx garaian dastatu ahal izango dira, Jatorri Deiturara bideratutako sagardo desberdinak. Datu ugari eskaini dituzte denboraldiaren hasierako txostenean

Uzta historikoa izan da kopuruz, eta aurreratua, heldutasunari dagokionean. Hori dela eta, sagardoak nahiko aurreratuak daude sagardotegi askotan. Euskal Sagardoa jatorri deiturak Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako sagastiak eta sagardogileak biltzen ditu eta beraz, tokiaren eta sagar moten arabera aldea izan liteke, baina orokorrean uzta handia izan da. Aurtengo uztan, lau milioi litro sagardo egin dira Euskal Sagardoa jatorri deiturara bideratuak, eta horretarako, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako sei bat milioi kilo sagar erabili dira, iazko uztan baino lau bat milioi kilo gehiago. Bistakoa da, beraz, aldea.

Geroz eta sagardogile gehiagoren aukera da

Bertako sagarra gehiago izan bada ere, sagar guztiak ez du Euskal Sagardoa egiteko balio. Kalitatea bermatu ahal izateko irizpide batzuk bete behar baitira, eta horiek bete ezean ez dira sagardoa egiteko ekoizpen katean sartzen.

Aurreko urteekin alderatuta, ordea, geroz eta gehiago dira ekoizpenean sartzen ari direnak. Urrats garrantzitsua da, Euskal Sagardoa jatorri deitura indartzeko bidean.



Euskal Sagardoaren identifikazio marka.

Euskal Sagardoa egiteko 250 hektareatako sagarra erabili da eta berrehundik gora izan dira sagargileak. Ezinbestekoa da sagarzaleen lana, Euskal Sagardoak aurrera egin ahal izateko, oinarria lehengai baita eta

profesionalizazio lan horretan ari da jatorri deitura, kalitatezko sagarra eta uzta orekatuak lortu ahal izateko.

Aurten, iaz baino sagardo gehiago egin da Jatorri Deiturara bideratuta eta 48 sagardo-

tegik egin dute sagardoa, aurreko uztan baino 13 gehiagok.

Kapsula eta sagartxo gorria

Kontsumitzaileak merkatuan erraz identifika dezan, botila bakoitzak bere sagardotegiaren etiketa darama, baina Euskal Sagardoaren irudia izango du botilaren goikaldean, kapsula edo/eta lepoko sagar gorria. Bi bereizgarri horietako bat edo biak daramatzaten botilak bakarrik izango dira Euskal Sagardoa jatorri deiturako sagardoak.

Bestalde, kontsumitzaileak txotx garaian ere identifikatu ahal izango ditu Jatorri Deiturara bideratutako sagardoak kupelean, sagar gorria eta prezintoak izango baitituzte kupelek.

Jatorri deitura duten sagardobotila guztiak bi ezaugarri nagusi dituzte. Alde batetik, Euskal Sagardoa %100 bertako sagarrez egindakoa da. Hori da, hain zuzen ere, jatorri deituraren helburu estrategikoetako bat: bertako sagarraren aldeko apustua sendotzea eta bultzatzea. Horretarako Euskal Herriko 115 sagar mota desberdin onartu dira.

Bestetik, bigarren ezaugarria kalitatearekin lotuta dago. Euskal Sagardoa jatorri deitura duten botila guztiak kalitatebermea izango dute. Fraisoro Laborategian egiten dira kalitate frogak, bai fisiko-kimikoak eta bai organoleptikoak. HAZI

AURTENGO UZTAN LAU MILIOI LITRO SAGARDO BIDERATU DIRA JATORRI DEITURARA

Fundazioak egiaztatuko du prozesu osoa, hasi sagastitik eta botilaren salmentara arte.

Kontsumitzaileak, beraz, Euskal Sagardoaren jatorri deitura duen botila bat erosten duenean, ezaugarri horiek biak bermatuak izango ditu: tokikoa eta kalitatezkoa.

Egitasmo honetan hasieratik parte hartu duten eragile guztiak nabarmendu dutenez, sektorea batu izana da Euskal Sagardoa jatorri deiturak lortu duen helburu nagusietako bat, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako sagar eta sagardogileen elkarte guztiak, hiru herrialdeetako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritza batu baitira jatorri deiturari bultzada emateko eta horren erakusle da geroz eta sagarzale eta sagardogile gehiago ari dela proiektuan sartzen.

Bertako sagarra

Jatorri deiturara atxikitako sagargile eta sagardogileek geroz eta bertako sagar gehiago erabiltzeko konpromisoa hartu dute. Hauek dira sagar mota nagusiak, gehien erabiltzekoak: Errezila, gezamina, goikoetxe, manttoni, moko, mozolua, patzola, txalaka, urdin, urtebeta, urtebi haundi, urtebi txiki, verde agria (frantzes sagarra), boskantoi, gazi gorri, aritza, ibarra, limoi, mendiola, merabi, mikatza, saltxipi, txistu sagarra, azpeiti sagarra.

Bizi esperientzia ahaztezinak
943 336 811
www.sagardoa.eus

Egin zure emetaba nahi duzun Sagardotegian!
Bidea ahazten ditzugu!

BURUNTZALDEA, sagardoaren lurraldea
KUPELA, sagardoaren hotela
HK10, sagardozaleen logela

HOTEL K10 HOTELA

Hotel K10
943 337 357
info@hotelk10.com
Erratzu industrialdea. Urnieta

Ongietorriak sagardozaleak, Urnietara!

Goza ezazue gure landa gunearekin, herrigunearekin eta sagardoaren kulturarekin

Sagardoa Urnietan bizi da

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



ZABALIK

JON UNANUE MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA

Santa Ageda

Azken hogeita bost urteetan bezala, aurten ere Manuel Larramendi Kultur Bazkunak otsailaren 4an Santa Ageda bezperako erronda antolatuko du, herriko beste elkarte, ikastetxe eta talderen partaidetzarekin. Aurtengo berezitasuna zera da: otsailaren 4a Santa Ageda bezpera izateaz gain igandea dela, baina horrek ez du eragotziko urtero-urtero koplak kantatzera elkartzen den ehun lagun inguru horiek bere erronda egitea, arratsaldeko seietan hasita (18:00). Irteera Larramendi Bazkunaren Dr. Huizi kaleko egoitzaren parean izango da, behin bertako mastan Santa Ageda eguna Euskal Herriko eguna dela gogorarazten duen ikurriña lau haizeetara ipini ondoren. Ikurrina mastara igotzeaz, aurten, Ramon Beraza arduratuko da, hain zuzen ere azken hogeita bost urteetan Santa Ageda bezperako abesbatza zuzentzeaz hutsik egin gabe arduratu dena.

Jarraian, herriko kaleetan barrena ibiliko dira Santa Ageda bezperako koplak kantari, baita *neguko otso beltzarenak* ere. Gaueko zortzi eta erdietan inguru eman ohi diote amaiera errondari.

Santa Ageda bezpera iritsi aurreko egunetan errondan parte hartuko duten askok koplak eta kantak prestatzeko aukera izango dute, Ramon Beraza musikariaren zuzendaritzapean. Aurten, ahotsak, kantak eta soinuak prestatzeko bi saio egingo dituzte: urtarrilaren 29an izango da lehenengoa, astelehenarekin, iluntzeko zortzietan (20:00) Pio Baroja kalean dagoen Ambrosia Olabide Gizarte Zerbitzuen atarian. Bigarrena

eta azkena, toki berean, urtarrilaren 31n izango da, asterazkenarekin, iluntzeko zortzietan ere (20:00).

Larramendi Bazkunetik adierazi nahiko genuke edozein herritarrek parte har dezakeela kantu errondan, tradizioak agintzen duen bezala jatzeta eta kantatzea dela

jartzen diren bi baldintza bakarrak, eta ahal dela –hori bai– iragarrita dauden bi entseguetara joatea.

Erronda amaitu ondoren afaria egingo dute Berrozpeko Ontza Elkartean izena aurretik ematen dutenek. Izena emateko azken eguna urtarrilaren 31n izango da, iluntzean egingo den entseguan bertan. Egunean bertan ezin da izenik eman afaritara joateko.

RAMON BERAZA ARDURATU DA AZKEN HOGEITA BOST URTEETAN ABESBATZA ZUZENTZEAZ

GUTUNA

Eskerrak eman

ASUNCION, ENPRESA BATZORDEA

Joan zen urtarrilaren 10ean, hiru egun eta erdiko grebaren ondoren, Tolosako Santa Maria de la Asuncion (INVIZA) klinikako, Ordiziako, Tolosako Belateko eta Andoaingo zentruetako langileok manifestazio bat egin genuen Tolosan.

Tolosaldea guztiko herritarrak deituta zeuden eta hotza, euria edota haizea eginagatik ere, manifestazio jendetsua izan zen. Hori horrela, bertaratutakoei bereziki, baina baita babestu gaituzten gainerakoei ere eskerrak eman nahi dizkiegu gatazka honetan gu ulertzeagatik, parte-hartzeagatik eta babesagatik.

Herritarrek arazoa Tolosako alkatetzak baino hobeto ikusten dutelakoan gaude;

izan ere, alkate anderearekin izan genuen bileran zer esan ez genekiela utzi gintuen alkate andereak. Honako hitzak entzun genituen: “Osasungintza ez da Udalaren kompetentzia...”, “Kexarik ez bada...”. Eta kezarik ez izateagatik arazorik ez dagoela ulertu behar al dugu? Gure alkate andereak agian ez daki paziente batek “bizi konstante onargarriak” izanagatik ere “hiltzorian” egon daitekeela, eta horixe bera da Tolosaldeko osasungintzarekin gertatzen ari dena. Egoera horrek, aldi berean, Tolosaldeko ESI (Erakunde Sanitario Integratua) zuzentzen duen pertsona ere agerian jartzen du.

Gure iritziz guztiok ere herritarrekiko edo erabiltzaileekiko ardura

handia dugu eta gure egiten dugu Medicusmundiren ondorioa, hain zuzen, osasungintza erabateko pribatizazio bidean dagoela eta horrek sortzen duen kezka.

Guk gure eskualdean osasungintza ez diskriminatzen mobilizatzen jarraituko dugu, eta horretarako egoerak eragiten dieten udaletxeetara, alderdi politikoetara eta plataformetara joko dugu. Horren harira, datorren hilaren 26an Donostiara (Pio XII biribilgunea-osasungitza) gonbidatzen ditugu herritarrak 11:00etatik 12:00etara egingo dugun kontzentziora eta prentsaurrekora. Sailburu den Darpon jaunari dei egingo diogu, entzun gaitzan.

POSTONTZIA

Sinatutako gutunak argitaratzeko posta elektronikoak: andoain@aiurri.eus | urnieta@aiurri.eus



Aiurri eskuragarri:
Ebez ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Umieta, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa.
Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetak: Garbiñe Ugartemendia. idezkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatazaileak: Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Umieta).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: ERROITZ
ALJATUAK: ALJATUAK, nesteez, TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOAINGO UDALA
Umieta Udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

GIPIZKOAKO Foru Aldundia
Hizuntza Berlinguasmerako Zuzendaritza

ZIURTAGIRIA: 2017 Bitarn

BABESLEAK: AIURRIKO harpidedunak ezinbestekoak dira.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

PROTAGONISTA

“Bizikidetzaren hainbat ertz erakusten saiatu gara”

AIORA ZULAIKA PIRRITX BASTERORA DATOR, PORROTX ETA MARIMOTOTSEKIN BATERA

Olatz Lasa ANDOAIN

Aiora Zulaika “Pirritx” bilakatzen da taula gainean. Asteburuan, “Borobilean” ikuskizuna eskaintzera datoz Basterora.

Garrantzia handia hartzen du grafismoak muntaia berrian.

Taldeak jada hogeita hamar urteko ibilbidea egin du, eta Tolosako Bonberenea Gaztetxeak hogeit. Ideia horretan sortu da musikaren soinu eta estetika *gaztetxero* eta *rockeroagorako* joera, Joseba Poncerekin eta Karlos Osinagarekin landu duguna. Estetikan eta musikan egin dugun lanketa izan da.

Lan berrian hizpide dituzue umeen kasketak. Nolakoa izan da lanketa prozesua?

Hizpide hartu dugu egun hain modan dagoen adiera: bizikidetzaren. Hori bai, beraien hizkuntzara egokituta. Askotan galdetzen dute: Nork agintzen du etxean? Kalean? Eta eskolan? Egunero suertatzen zaizkigun gatazka txiki horien soluziobidea



Aiora Zulaika, Pirritx. URTXINTXA ESKOLA

irudikatu nahi izan dugu. Uxue Alberdik oso ondo lagundu digu gai hori lantzen, lau ipuintxotan. Haurrari zail egiten zaio demokrazia edo diktadura moduko terminoak ulertzea, baina modu sinplean

azalduz gero erraz ulertzen du. Eta borobil txikietan gatazka txikiak konpon daitezkeen bezala, hainbat borobiletan bildu beharko ginatke gatazka handiagoak konpontzeko ere.

Bizikidetzaren familia edo elkarrizketa adierekin laburbildu daiteke ikuskizun berria?

Bai. Baita lagunartea, elkar ulertzea eta enpatiarekin ere. Uxue Alberdik borobiltzen lagundutako esaldi batean laburbiltzen dugu borobilean ikuskizuna: Lurrean borobilean eseri gara denak elkarri begira: nor bere mina, nor bere desira... tirabirak tirabira borobila elkarrizketan ari da! Hori da funtsa. Hamabi abesti rockerotan, batzuk dantzagarriagoak eta beste batzuk lasaiagoak. Bizikidetzaren hainbat ertz eta ikuspegi erakusten saiatu gara, beti ere aurrean ditugun haurren begietatik.

Guinness liburuan egon beharko zenukete, ez baita munduan inor zuek bezainbeste musu eman dituenik.

Urteetan plazaratzen ditugun ikuskizunetan, saioa amaitu eta gero jasotzen dugun goxotasuna, txalo zaparrada, besarkadak..., Horrek ez dauka ordainik. Oso exigentea da gure lana, baina oso esker onekoa. Oso eskertua sentitzen dugu gure burua Euskal Herriko lagunek han eta hemen erakusten diguten maitasun guztiagatik. Nahiz eta Guinness liburuan ez azaldu, berdin dio.

HAU ERE BADUGU!

Gaztazaleen irteera, sari eta guzti



Hogeita hamar lagun abiatu ziren Iruñeara, joan zen ostegunean, Jon Gaztañaga herrikide eta lagunari animoak ematera. Osasuna-Nastic Bigarren mailako futbol partidaren, andoaindarrek Gaztañaga jokatzeko eta irabazten ikusi zuten. Bidaia, beraz, probetxugarria izan zen. Are gehiago Gaztazaleak taldeko Oxtape eta Irazentzat. Haiek eraman baitzituzten etxera Gaztañagak opariturako kamiseta bana. Aiurrik bidaiaren harira emandako albistea eta Gaztazaleak taldearen informazioa bolo-bolo ibili dira sarean.

Hondakinak, kezka eta iruzkin iturri



Bilketa selektiboan goruntz egiteko, alegia, hobeto birziklatzeko, egitasmoak bata bestearen atzetik iragartzen ari dira Andoainen. Hondakin organikoak bereizteko edukiontzia kezka eta iruzkin iturri da Facebook sarean. Kexak badaude, bereziki irekiera sistemari dagokionez. Txarrenera, hori izan dadila arazoa. Konponbidea baduelako. Aldiz, konponbide zailagoa du jende askok etxeko intimitatean hondakinak ez bereizteko duen okerreko joera. Probatuz, eta ikasiz, herritarrek denborarekin txipdun edukiontzietara ohitu beharko dute. Errefusadun edukiontzia ere sistema horren bitartez ezartzeko lehen pausoak ematen hasi dira.

ITURRI ONETIK

Andoaingo Txirrindulari Eskola

Profesional mailako tropela martxan jarri da, eta laster batean ekingo diote haur eta gazte mailakoek. Kadeteak otsailaren amaieran hasiko dira, eta infantil mailakoak martxoaren hasieran. Estalitako guneetan prestatzeari utzi eta errepidera aterako dira, han eta hemengo lasterketetan parte hartzeko. Andoaingo Txirrindulari Eskola 1984an sortu eta geroztik kirol eta heziketa mailan lan handia egiten ari dira. 35. denboraldia abiatuko dute, 34 txirrindulariekin.

GORA ETA BEHERA



Erabat belztu zen zoruaren garbiketa lanak

Oharkabean belzten ari zen Zumea plaza. Nola gainera! Herrikideak garbiketa lanei ekin dietenean konturatu dira. 2004tik hona, plaza haur eta heldu askoren bilgune bilakatu da. Denen begien aurrean egonik ere, belztu egin zen oharkabean. Utzikeriak jotako bazterrei txistu egiteko joera nagusitzen den garaiotan, ez dago gaizki asko erabiltzen diren guneak garbitzeko lana txalotzea.





Justo Arriola liburuaren idazlea, "A los pies del caballo" liburua eskuetan duela. AIURRI

Heroína, heriotza eta poliziaren jarrera hizpide

Justo Arriola elgoibartarrak 'A los pies del caballo' liburua aurkeztuko du Irunberri elkartearen datorren urtarrilaren 31n. Iluntzeko 19:00etan hasita, 80ko hamarkadan zuzenean edo zeharka belaunaldi osoa kolpatu zuen fenomenoaz jardungo du.

Xabier Lasa ANDOAIN

Liburuaren lehenbiziko ataletan munduan zehar narkotrafikoa insurgentziaren aurkako tresna gisa erabili izan duten hainbat kasu aztertu ostean, Euskal Herrira hurbiltzen da egilea. Nork sartu zuen heroína Euskal Herrian 80ko hamarkadan? Zergatik? Eta nola? Galdera horiei eta gehiagori erantzuteko asmoz idatzi du liburua Arriolak. Polizia nazionalaren eta guardia zibilen jarrera, narkotrafikoa, ETaren hilketak, hildako gazteen kopurua, heroinaren munduan ibilitako testigantza pertsonalak... Helduleku asko ditu *A los pies del caballo* Txalapartak argitaratutako liburuak.

Idazleak onartzen du garai hartan euskal gazteriaren zati batek errealitatetik ihes egiteko heroína kontsumitu zuela. Baina halaber, iruditzen zaio beharrezkoa izan zela polizia indarren konplizitatea droga hori Euskal Herriko kaleetan barra-barra eta gupidarik gabe mugitu zedin.

Egileak tesi hori datuekin eta testigantzekin plazaratzeko ahalgina egiten du. Liburua idaztean, baina, bigarren helburua bilatu ahi izan du: Urte horietan guztietan heroinaren eta HIESaren ondorioz hil ziren gazteei gorazarre egitea. Urrutira gabe, egileari berari Elgoibarko lagun asko hil zaizkio heroinaren eta HIESaren eraginez.

Liburua Txalaparta argitaletxearen eskutik argitaratu du Arriolak, eta egundoko arrakasta lortu du Euskal Herrian eta Espainiar estatuan. Dagoeneko bosgarren edizioa argitaratu dute. Arriolak Aiurriri aitortu dionez –elkarrizketa laster argitaratuko da– liburuak berebiziko interesa piztu du, erreakzio ugari sorraraziz. "Jende ugari hurbildu zait ezkutatu dagoen errealitate hori argitaratzea beharrezkoa zela adieraztera".

Arriola gizarte ekintzailea dugu, hainbat herri mugimendutan murgildu dena; besteak beste, Elgoibarko Gaztetxea, Zazpiki Irrati librea, antimilitarismoa.

Guraso tailerra martxan jartzeko deialdia luzatu dute

Egunerokoan seme-alabekin erabili ditzaketen heziketarako erremintak eskaini nahi zaizkie



Gurasoei zuzendutako tailerra izango da, otsailean abiatuko dena. UPO

Erredakzioa ANDOAIN

Guraso eta seme-alaben arteko harremanean, eta baita heziketan ere, zailtasun egoerak sortu ohi dira. Nola erantzun edo zer egin, aita eta ama askoren galdera errepikakor bilakatu ohi da. Andoaingo Udalak, Gizarte Zerbitzuen Sailaren bitartez, haur eta nerabeen gurasoei zuzendutako tailerra antolatuko du. Erremintak eskaini nahi dizkietela adierazi dute, ohar bidez: "Udalerriko gurasoei zuzendutako tailerra da. Gizartearen sortutako hainbat egoerek, es-

tresna eta antsiedadea sorrarazten dietenez, eta horren ondorioz beldurra eta segurtasun ezan oinarritutako erantzunak ematen dituztenez, egunerokotasunean erabili ditzaketen heziketarako erremintak sendotzea du helburu".

Tailerra batez ere, parte-hartzailea izango da. Otsailean abiatuko da, ekainera bitarte. Informazioa eta izen ematea: 648 039 274 (Saioa) edo 618 395 265 (Iker).


Jasotako eskaeraren arabera osatuko dituzte taldeak.



AIURRI

Hitzartu egitasmoa

Hondakinen kudeaketan gipuzkoarrek azken hitza izan dezaten ahalbidetzeko, GuraSOS ekimenak Hitzartu egitasmoa aurkeztu berri du. Urte amaierarako, zaborren kudeaketarako plan integrala ontzea dute helburu. Xehetasun guztiak Urigainen eskaini zituzten, Ipar Haizea plataformak asteartean antolatu zuen hitzaldian.





Hezkuntzari lotutako egitasmoa Eusko Legebiltzarrera eraman zuten, joan zen urtarrilaren 23an. EUSKO LEGEBILTZARRA

Udaletxetik Legebiltzarrera

“Hezkuntza hobetu: jakin, partekatu eta elkarriketatu” izenburupean, Euskadiko Eskola Kontseiluak eta Urnietako Udalak hezkuntza sistema hobetzea eta egungo testuingurura egokitzeko proiektuan murgildu dituzte herriko lau ikastetxeak

Erredakzioa URNIETA

Urnietako hezkuntza komunitate osoa murgildu da egitasmoan, hots, irakasleak, ikasleak eta gurasoak. Bakoitzak bere lanaketak egin ditu, saio ezberdinak burutu dira Lekaion edota ikastetxe bakoitzean. Eta, azkeneko, ondorioak Eusko Legebiltzarrera eraman aurretik, saio berezia egin zuten Urnietako udaletxean. Bertan irakasleen eta gurasoen lan saioetatik eratorritako manifestuak irakurri zituzten, eta ikasleek egindako lan guztietatik aukeratu dituzten bosten lanak iragarri zituzten. Lan horien guztien aurkezpena taldekide bakoitzak egin zuen. Hots, Peru Sanchez, Ane Otaegi, Ainara Insausti, Jone Izagirre eta Malen Tranche.

Lan horietan guztietan hezkuntza sisteman txertatzeko proposamen zehatzak egin di-



Urnietako ikasle bat aritu zen lehendakari lanetan. EUSKO LEGEBILTZARRA

Urnietarra Legebiltzarreko buru

Nora Muro urnietarrak Legebiltzarreko lehendakari Bakartxo Tejeriaren lekukoa hartu zuen. Urtarrilaren 23an egin zuten ez ohiko saioan Santurtzi, Labastida, Oion, Laguardia eta Urnietako ikasleen lehendakari aritu zen.

tuzte. Besteak beste, egunerokoan beharrezko diren sukaldaritza edo sorospen ikastaroak antolatzea, euskararen erabilera eta kultura sutatzeko jarduerak burutzea, teknologia berrien erabilera sustatzea, irteera gehiago egitea –‘asko ikasten baita’–, harremanak indartzeko tutoretza ordu gehitzea, talde-lana oinarritzat hartzea...

Irakasleak eta gurasoak

Ikasleak ez dira egitasmoaren protagonista bakarrak izan. Gurasoek eta irakasleek ere egitasmoan murgildu dira. Urtarrilaren 17ko saioan irakasleek eta gurasoek ere parte hartu zuten.

Irakasleen bozeramaile lanetan Ixiar Artola irakaslea aritu zen. Bere mintzaldian hezkuntza sistema hobetzeko konpromezua hartuko dutela iragarri zuten, hainbat aldaketa proposatuz: ikasleekin metodologia aktibo, berritzaile eta parte hartzaileak erabiltzea, teknologia berrien onurak ikastetxeen egunerokoan lagungarri izatea, elkarbizitza sustatzea, eskola irekiagoa bultzatzea, gurasoekin harremana sendotzea edota, euskaratik hasita, ikasleen hizkuntzetarako gaitasuna handitzea.

Gurasoen izenean Lidia Ubillosek hartu zuen hitza. Heziketan pentsatzeari denbora eskaintzea, ikastetxeetan gurasoak agente aktibo izatea, seme-alaben ikasketa prozesuan murgiltzea, herrian hezkuntzaren inguruan antolatzen diren ekintzetan parte hartzea eta irakasleak errespetatzea izan ziren hizpide izan zituenak.

“Hezkuntza hobetu: jakin, partekatu eta elkarriketatu” egitasmoan Urnietako Udalak parte hartze aktiboa izan du. Mikel Pagola alkateak eragile guztien inplikazioa txalotu zuen: “Emandako babesak ikaragarria izan da, eta baita, prozesu guztian egindako lana eta erakutsitako jarrera ere. Asmoa hezkuntzaren alorrean gogoeta egitea izan da, egungo hezkuntza sistematik abiatuta, baina batik bat, etorkizuneko ikuspegi landuz: zertan hobetu daitekeen hezkuntza eta zein hezkuntza eredu izan nahiko genukeen, besteak beste”.

Urtarrilaren 17an Urnietatik ateratako ondorio guztiak Eusko Legebiltzarrera eraman zituzten.



Nelida Zaitegi. WIKIPEDIA

Zaitegiren eskertza urnietarrei

Euskadiko Eskola Kontseiluko lehendakariak itxi zuen Urnietako saioa: “Jasotako proposamenak Legebiltzarreko alderdi guztiei eta Hezkuntza sailburuari bidaltzeko konpromezua hartzen dut. Baina horrekin ez da gaia bukatuko. Orain, bakoitzak harturiko konpromezuak bete behar ditugu, izan ere, aldaketak norberarengandik hasten dira. Hau hasiera izan da”.

Hilabeteotan garatu den egitasmoaren amaieran, esker honeko hitzak izan zituen Urnietako Udalarentzat eta herriko hezkuntza komunitatearentzat. “Ohore bat izan da niretzat zuek bezalako jendea ezagutzea eta zuekin lan egitea. Zuen jarrera ikaragarria izan da. Gogotik saiatu zarete eta bidean topaturiko oztopo guztiak gainditu ditugu. Hau ez zait maiz gertatzen. Urnietan lan egitea gozamen hutsa izan da. Asko disfrutatut. Horretan talde bultzatzaileak ikaragarri lagundu du. Prozesu honetan funtsezko pieza alkatea izan da. Aktak eta guzti egin ditu eta niri ez zait horrelakorik gertatzen normalean. Erraztasun guztiak eman zaizkigu eta oso eskerturik nagoela esan beharrean nago”.

Andoni Urbistondo URNIETA

Jokin Lizeagak (Urnieta, 38 urte) harreman berezia izan du betidanik komunikabideekin. Sare sozialei muzin egiten die, borondate propioz, eta elkarrizketak ere tantaka ematen ditu. Aiurrik urteroko hitzordua eskatuta, "ez daukat zer asko kontatu", bota du. Baina zeozer badu, 32 minutuko grabazioa eman baitu fruitu solasaldiak. Harimutur asko ukitu ditu: korrikagintza, lesioak, aitatasuna, lana, seme-alabak, herria, jendearen balioak, boluntario jarduna, heriotza... Heriotzaren inguruan egiten dituen hausnarketekin eman nahi izan dio puntua elkarrizketari, Maritxu ama hil zela hiru urte bete direnean.

Pelikula bat izango balitz bezala, klaketa egin eta aurrera: "Zer kontatzea nahi duk?", galdetzaile Lizeaga. "Nahi dukena", erantzuna. 'Grabatzen!', eta hasi da. "2017a ondo joan da. Intza jaio zen otsailak 6an (hirugarren seme-alaba), 3-4 asteko baimena lortu eta apurtxo bat entrenatzeko aukera izan nuen, batez ere umearen karga edo neke handiena Ainhoa bikoteak eraman zuelako". Martxoan *Tres Valles* lasterketa korritu zuen La Albercan, Salamancan, "eta Miguel Heras bertako izarra garaitu nuen, Espainiako atariko digitaletan eta nahiko oihartzun izan zuen nire garaipenak".

Astebete pasa zen, eta kalkaneo hezurra apurtu zitzaion Lizeagari, orkatilan. "Bi urte daramatzat borrokan hezur horrekin. Hezur edema edo kolpe bat daukat, eta azkenean apurtu egin zen". Edema edo inflamazioa korrika egitean astragalo eta kalkaneo hezurrek talka egiten dutelako sortzen da. Lesioa 2016ko apiriletik dator: "bihurritua eduki nuen, eta horrek halako hezur edema bat eragin zuen kalkaneo eta astragaloan. Kalkaneo fragilagoa da, eta hautsi egin zen". Teorian, gorputzak berak absorbitu edo osatu behar duen kontua izaten da hezur edema, "baina nire kasuan kontrakoa gertatu da. Susmoa dut dagoeneko ez dela desagertuko, berarekin bizi eta entrenatu behar izango dudala, zeren eta medikuek ez didate eperik ematen, eta medikuntza arloak ez du irtenbiderik ematen lesio hori osatzeko". Atsedena hartuta ere ez du bermerik edema desagertzeko, eta Jokin jakitun da gorputzari pa-



lazko martxoan, Salamancako La Alberca herri ederrean amaitu zen Tres Valles lasterketan garaipen sonatua lortu zuen. J.VICENTE

"Gertuago nago erretirotik, eliteko kirolari izatetik baino"

Kirol emaitzek baino egunerokoak arduratzen dute Jokin Lizeaga: lana txukun egin, seme-alabak ondo hezi, lagunekin mundua konpondu... Mingaina zorrotz arlo askotan, autokritikari uko egin gabe, eskaera bakarra egin du: "zorte apur bat lesioekin".

sara handiak emandakoa dela. Horrek, epe luzera, bere koska ekarriko duela. Hilabete pare bat eman zituen geldirik, "ekaina arte edo. Txirriki-txarrak hasi nintzen, ekainean, eta bost karrera korritu ditut". Azkena

KONTZIENTE NAIZ HAUSKOR NAGOELA FISIKOKI, ETA AKASO ERRETIRATZETIK GERTUAGO NAGOELA

Zeanurikoa, Gorbeia Suzien, Europako Txapelketa, urrian. Laugarren izan zen. Proba baino bi aste lehenago neumonia eduki zuen, "eta tripa eta txikituta utzi zizkidan. Bukaeran ordaindu egin nuen, eta pena hartu nuen, ze banuen podiuma lortzeko erronka".

Kalkaneo, neumonia... Lesio izurritea: Zahartzen ari ote da Jokin? "Baita, baita... 38 urterako noa dagoeneko. Zaindu ere ez naiz gehiegi zaintzen, denbora gutxi dudalako, entrenatu ere

fundamentu handirik gabe... Goizetan lana, umeak jaso 16.30ean, ilunabarrean etxeratu egin behar haurrekin... zeregin asko ditut, eta dena egin nahi izateak dena gaizki egitea ekartzen du. Onartua dut orain lehen-

MENDI LASTERKETEKIN ASETU NAIZ, ETA EGINDAKOAREKIN ZORIONTSUA NAIZ

tasuna bikoteak duela, batez ere lan arloan bera eszedentzian dagoelako haur jaio berria zaintzeko. Ordubete libratzen badut, ezin hobe, eta luzaketarik egin ez, dutxa ere aitaren batean... Egiten dudanarekin konforme nago, halere. Sarri, minarekin joaten da mendira: "Bai, bai, hor dago, ez da joaten. Egun batzuetan korrika egiten uzten egiten dit, besteetan ez...".

Korrikari denbora gehiago emateko gogorik ez du

Lesioak lesio, urteak urte, eliteko kirolaria sentitzen al da oraindik Lizeaga? "Korrikalari sentitzen naiz, inoiz ez bainaz burubelarri ibili mendi lasterketetan onena izateko asmoz. Sasoi puntu ona azkar lortu izan dut, eta horri esker, asko egin gabe nahiko puntan ibili izan naiz. Lesioek-eta errespetatzen ba naute, esperantza badaukat oraindik Zegaman, edo Munduko Kopan aurrera samar ibiltzeko. Euskal Selektzioak konfiantza izaten segitzen du nirekin, eta hori ere lagungarria da niretzat. 2-3 hilabete onekin goi mailan ibil naiteke, eta horretan nabil, esfortzu ikaragarri egin gabe kirolari guztiok gure egoa elikatze behar ditugun emaitza on horiek lortu asmoz".

Egin beharreko sakrifizioak onartzeko modukoak diren bitartean, jarraitu egingo du Jokin, buruz-eta indartsu sentitzen baita. Emaitza onekin bada, aurrera. Ez bada, berdin. "Konsziente naiz hauskor nagoela fisikoki, eta akaso erretiratzetik gertuago nagoela, elitean ibiltzetik baino, baina azken bi urteetako joera aldatzea espero dut... Urte berriari 6-8 hilabetez saiatzeko tartea eskatu nion, eta ea ba, zer pasaten den. Gorputzak bale esaten didanean oinez ibiliko naiz eta kito", dio ziurtasun osoz.

Grinarik ez dauka, lasterketei denbora gehiago eskaintzeko: "Ez. Jendeak galdetu izan dit, serioago hartu entrenamenduak eta... Mendi lasterketek eman didate eman beharrekoa, asetu naiz, eta egindakoarekin zoriontsua naiz. Europako lehena edo laugarrena izan, nire bizitza ez litzateke asko aldatuko: umeak zaindu, noizbehinka mendia edo hondartzara joan... ez naiz ambiziosoa. Orain egoki ikusten dudana denbora ematen diot: asteen 4-10 ordu bitarte, eta ez



Jokin Lizeaga, Zorrotzarri muinoan. Ordubeteko tartea lortzen duenean, Onddi eta Munisko aldera doa entrenatzera. ANDONI URBISTONDO

diot gehiago eskainiko, horrek umeak zaintzaile batekin egotea ekarriko bailuke". Kirola *hobby* modura hartzen du Lizeagak, "eta ez kosta ahala kosta hobetzeko erronka modura".

Kirol prestatzailea

12-15 lagunuen prestakuntza gidatzen du. "Batzuk kirolari onak, selekzioko kideak gehienbat, eta besteak, herrikoiak. Txukun egiten saiatzen naiz, eta haien lorpenek ere ematen didate halako poza". Nabardura garrantzitsu batekin: "Erotu gabe. Exigentzia muga antzekoa dute biek, handia. Bai ondo dabiltzanak, baita hainbestean dabiltzanak ere, zoritxarrez". Lizeaga jendeak hankak lurrean izan ditzan saiatzen da: "sare sozialetan ego handia edukitzeak ez duela bere bizitza hobetuko esaten diet". Obsesio edo morrontza puntu bat antzematen du kirolariengan, esaldi gordin batekin: "kirolarien artean hobetu behar hori XXI. mendeko izurritea dela esango nuke. Saiatzen naiz aholkatzen, baina ez da lantegi erraza, jendea egoskorra da". Lizeagaren ustez, jendea itsututa dago kirol lor-

penekin, "lorpen garrantzitsuenak beste batzuk direla jabetu gabe: aita ona izatea, lagunekin egotea, zure lanbidea... Sare sozialetan-eta dena da marka, 'hau egin dut', 'hurrena beste hori egin behar dut', eta agian bestelako mezuak zabaldu behar-ko genituzke: 'klase ona eman dut' nire kasuan, edo 'Iparlat-eko makina konpondu dut', edozein langileren kasuan. Gizarteak kirol markak baloratzen ditu gehiago, eguneroko gauza sinple baino garrantzitsuak baino".

Boluntario jarduna krisian

Lizeaga Zanpatuz mendi elkar-teko sustatzaileetakoa da, eta urtetan han eta hemen lagundu izan du. San Silbestre egunean ere aritu zen Poxta Zahar laguntzen, eta lasterketa hori antolatzeko egon diren zailtasunak aintzat hartuta, analisisia egin du: "Boluntario lana ez da baloratzen. Urnieta beti izan da beste herri batzuk baino pasiboagoa, ez hain aktiboa, baina ni neu ere pasibo izan naiz azken urteetan. Ahal izan dudanean laguntzen dut, baina jabetuta nago eroso bizi nahi dugula, eta etekin pertsonala lehenesten dugula,

etekin kolektiboa baino. Musu truk aritze hori garesti dago egungo bizitzan".

Hasi da, eta ez da berehalakoan isildu: "Urnietan mountain bike lasterketa zegoen, Adarramendikoa, Herri Bira... denak desagertu dira. San Silbestreko gazteak ere ez dira jende soberarekin ibili, eta pentsatzen dut Iñistorra edo dantza taldeetan ere antzeko izango dela. Zanpatuzen ere halamoduz gabiltza, 140 bazkide eta antolaketa 3-4 lagun... Jendeak *dio 'Urnieta hala izan da betidanik'*, arrazoi osoz, baina pena da hala izatea". Zergatiak aztertzeke modukoak omen dira: "Udalak bere erantzukizun parte izango du, eta herritarrek berea. Denok nahi dugu korri egin, parte hartu, eta antolatu ez. Boluntario jarduna zail dago, eta okerrera egingo duelakoan nago. Adibide argiak daude, errauskailuaren kasua, adibidez... Egon zen mugimendua, gaur dagoeneko itzalean dago. Azterketa sakona egin beharko da, orokorrean, baina herritarren aldetik, gehiago, ez baitut uste Udalak herrigintza edo boluntario lana sustatzeko behar handirik duenik".

Haurrak eta Maritxu ama

Hiru haurren guraso dira Jokin eta Ainhoa Jauregi bikotea: Lide, 7 urtekoa, Negu, 3koa, eta Intza, 11 hilabetekoa. Hirurekin bale? "Nire asmoa zen edo bat ere ez, edo asko, eta hiru baditugu. Hiru kopuru egokia da, lan handia ematen digute. Politia izan da, batez ere 2017 hau, Intzak aitari kaso egin diolako. Beste biek ama izan zuten begi bistan, Intzak ni ere existitzen naizela erakutsi dit, eta besteekin izan ez nuen harremana bizitzen ari naiz berarekin. Beste biak ere aitarekin gogoratzen dira, handitzen ari baitira". Ez daki besteren bat etorriko ote den, "baino igual bai, batek daki". Jatorrak eta irrifartsuak direla dio.

Bizitzaren hasiera eta amaiera, gizakiaren ezinbesteko bi prozesu horiek lizeagatarren etxean gertutik eta batera bizitzea tokatu zaie.

Solasaldia Maritxu ama zenarekin gogoratzu bukatu nahi izan du Jokinek: "hiru urte dira, dagoeneko, ama joan zela" –abenduaren 26an bete zen hirugarren urteurrena—. Aita hobeto dagoela dio, bi urte zail pasa eta gero. Korrika egiten duenean eta hausnarketa dezente egin izan ditu Jokinek heriotzari buruz, "eta iritsi naiz ondorio batzuetara: bere zoritxarrea, heriotza ona izan zuela amak, oso epe motzean bizitza on batetik heriotza etorri zitzaiolako. Niri ere heriotza halakoxea izatea gustatuko litzaidake. Alegia, ahalik eta gehien iraun, bizi kalitate onarekin, eta heriotza iristen denerako, ba bizi kalitate onetik agurrera ahalik eta denbora tarte txikiena pasatzea. Gogorra da ama galtzea, baina trantsizio hori ahalik eta azkarrena izateak, heriotza egokia izan zuela erakutsi dit. Nire lehen 38 urtetan nahiko bizitza ona egokitu zait, kalitatezkoa. Heriotza kontutan ere, zortekoak izan gara. Hiru hilabetetan utzi gintuen, eta hiru urte pasa eta gero, positibo ikusten dut. Guztioi iritsiko zaigu heriotza, eta prestatzen edo hausnartzen joatea ere ez da txarra". Esana geratzen da.

Urnieta, trinketeko txapeldunen faktoria

TRINKETEA Igande goizean urnietarrak nagusitu ziren Irurako trinketea, Gipuzkoako jubencil mailako eta senior mailako finaletan. Biak ala biak lehendik ere txapeldun izandakoak dira. Bereziki Loitegi, trinketeko txapelketa guztietan garaile izan baita

Erredakzioa URNIETA

Jubencil mailako finalean Urnietak Azkoitia garaitu zuen (35-17), Aitor Aldunberriren partida bikainarekin. Sakean oso ondo aritu zen, erantzunak ere ez zituen eskas eman, teilatua bilatu zuen, eta azken pilotakada txokoan utziz garaipena dotore eskuratu zuen.

Senior mailan Urnietak Behar Zana Amasa-Villabonako taldea garaitu zuen (40-28). Bitxia bada ere, Julen Loitegi ez zen oso fin ibili. Hasiera bikaina izan zen, eta hortxe oinarritu zuen garaipena: partidaren hasieran lortutako abantaila kontrolpean edukiz. Txema Gonzalez UKE taldeko arduradunak, jokoaren gainetik, garaipenari garrantzia eman zion: "Finalera iritsita irabazi beharra dago. Ez dira batere errazak, are gehiago, aurkari bezala Imaz txapeldunordea duzunean. Maila hauetan irabazi beharra dago. Emaizta baino askoz garrantzitsuagoa da garaipena eskuratzea".

Gauzak horrela, Gipuzkoan gutxi izango dira Julen Loitegik adina txapel pilatu dituzten pilotariak: Gipuzkoako txapelketa guztietan garaile, bakarka edo bikoteka; Euskal Herriko txapelduna, GRAVNIkoa eta baita mundu mailakoa ere. Zorionak!



Gipuzkoako txapelarekin eta koparekin, Aitor Aldunberri eta Julen Loitegi. UKE

Udaberri Txapelketa

Jubencil mailako partida, bikoteka. Alain eta Urna urnietarrek bigarren garaipena jarraian eskuratu zuten, Izurunen aurka (14-22), Donostiako Ibaetako pilotalekuan.

Gomazko paleta

Perez de Arenaza eta Arozenak zaraiztarren aurka galdu zuten (21-25). Gauza bera, Iruretagoiena-Iturbe bikotearen kasuan (25-9). Aurkarien pilota biziarekin majo sufritu zuten.

Ibilaldi aldaketa Euskaldunaren irteeran

MENDIZALETASUNA

Igande honetan, urtarrilak 28, Euskalduna mendigoizale taldeak mendi irteera antolatu du. Ohar bidez, aurreikusitako ibilbidean aldaketa iragarri dute. 14 kilometrokoa izango da ibilbidea, Nafarroako mendialdean egingo dutena: Etxalar-Centinela-Mendibil- Zugarramurdi. Busa Andoaindik 7:15etan irtengo da.

Urteko bigarren irteera izango da, urtarrilaren 14an Bermeo-Burgoa (450) - Matxitxako- Gaztelugatxe-Bakio ibilbidea osatu baitzuten.

Otsailaren 11rako hirugarren irteera aurreikusita daukate, Bakio eta Gorliz artekoa.

Leitza aldera iragarritako irteera, bertan behera

MENDIZALETASUNA

Zanpatuz mendi elkarreak aste-buru honetarako iragarritako irteera bertan behera geratu da. Astearte eguerdian hartu zuten erabakia, bereziki eguraldi txarra iragarritako dagoelako. Elurra 700 metro inguruan iragarri dute, eta mendi zeharkaldiaren zatirik handiena altuera horretan doa. Antolatzaileek, segurtasun arrazoiak tarteko, irteera bertan behera uztea erabaki dute. Leitza inauteriak direla eta, iaz hara egindako mendi irteera errepikatze asmoa zuten. Baita bazkaria hango jatetxe batean egin ere. Irteera, ordea, bertan behera geratu da.

KARTELDEGIA: SASKIBALOA, ARETO FUTBOLA

SASKIBALOA

SENIOR MAILA

EMAITZAK

Ganbara-Mundarro B **57-35**

SAILKAPENA

1	Zarautz	26 puntu
7	Hernani	21 puntu
8	Ganbara	20 puntu
9	Alde-Zaharra B	20 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

16:45 Hernani-Ganbara / Lar, 27

KADETE MAILA

EMAITZAK

Goierrri-Ganbara **27-67**

SAILKAPENA

1	Goierrri	21 puntu
2	Ganbara	21 puntu
3	Aloña Mendi	20 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

09:00 Ganbara-Arri BKL B / Lar, 27

ARETO FUTBOLA

SENIOR MAILA

EMAITZAK

Isu Leihoak-Euskalduna **1-6**

SAILKAPENA

1	Herrikide	27 puntu
3	Tolargi	24 puntu
4	Euskalduna	24 puntu
5	Idiazabal	23 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

18:30 Euskalduna-Herrikide / Lar, 27

ANDOAINGO TXAPELKETA

EMAITZAK

Irunberri-Centro Extremeño	1-3
Olajauna-Txalaka	1-4
Lanbroa-Dad Kutxa	5-4
Academia London-H. Extremeño	2-8
Pausoka-Powerade	5-7
Akerbeltz-Ekaintz	4-6
Gorostidi-Keler	0-4
Academia GF-Ganbara	3-5



“Lokatza droga baten parekoa da: engantxatu egiten du”



Datorren Aiarri astekarian: Olatz Odriozola

Buruntzaldea IKT taldeko igerilariak, sasoi betean

IGERIKETA Nahia Zudaire Espainiako txapelkun izan da gazteen mailako igeriketa egokituari, Euskadiko selekzioarekin. Gainerako taldekideek Hernaniko igerilekuan hitzordua dute, larunbat honetan jokatu den Neguko Ligaren azken jardunaldian

Erredakzioa ANDOAIN

Nahia Zudairek urrezko domina eskuratu du infantil mailako igeriketa egokituko AXA Espainiako txapelketan. Proba ezberdinetan parte hartu zuen, hots, 50 eta 100 metro tximeleta probatan, eta 50 eta 100 metro librean. Etorkizuneko AXA taldeko paraolimpikoen aitortza ere jaso zuen Zudairek.

Ez da klubeko bakarrik izango, Euskadiko selekzioarekin aritzen. Paula Sevillano eta Ainhoa Martín Kantabriako Comargo herrian murgilduko dira asteburu honetan, Euskadiko Federazioak jakitera eman duenez. Sevillano 100 eta 200 metro librean arituko da eta Martín, berriz, 100 eta 200 metro bularreko probatan. Baliteke erreleboetan ere parte hartzea.

Bi igerilari horiek, Leire Martinekin batera, Erkidego arteko Espainiako txapelketan hartuko dute ere. Oviedon izango da, otsailaren 17an eta 18an.



Larunbatean infantil, junior eta seniorrak Hernanin arituko dira. BURUNTZALDEA IKT

Neguko Liga

Larunbatean, arratsaldeko 16:00tan, infantil, junior eta senior mailako igerilariak jardunaldia izango dute Hernanin.

Alebin mailako neska-mutilak joan zen asteburuan Tolosako

Usabal kiroldegian izan ziren, maila polita eskainiz.

Aurrebenjaminak eta benjaminak ere gogotsu ari dira. Taldeak adierazitakoaren arabera, txukun eta lasai igeri egin aritu ziren Tolosako jardunaldian.



Igoerako ligaskara sailkatzeko garaipen polita

Urtea ondo hasi da UKE eskubaloien senior mailako neskenentzat, etxean bertan Eibar aurkari zuzena 21-18 menderatu baitzuten. Garaipenari esker, igoerako ligaskara sailkatzeko amets egiten jarrai dezakete. Partida orekatua zan zen, eta amaiera aldera etxekoan

alde jarri zen jokaldi azkarrei eta defentsa lan sendoari esker. Lana gogotik egin eta gero, ondo merezitako garaipena izan zen. Senior mailako mutilek, aldiz, Egiako taldearen aurka 30-31 galdu zuten etxeko partidari. Hasiera kaskarra gogotik ordaindu zuten.

KARTELDEGIA: FUTBOLA, ESKUBALOIA

FUTBOLA

PREFERENTE MAILA

EMAITZAK	
Sanpedrotarra-Urnieta	1-1
Orioko-Euskalduna	1-1

ASTEBURUKO PARTIDAK

17:30	Eas 08-Urnieta / Lar, 27
17:45	Euskalduna-Deusto / Lar, 27

ERREGIONAL MAILA

EMAITZAK

Trintxerpe-Euskalduna	2-1
-----------------------	-----

ASTEBURUKO PARTIDA

19:30	Euskalduna-Asoleus / Lar, 27
-------	------------------------------

KOPA, NESKAK

EMAITZAK

Allerru-Euskalduna	6-0
--------------------	-----

ASTEBURUKO PARTIDA

15:30	Euskalduna-Añorga / Lar, 27
-------	-----------------------------

JUBENIL MAILA, MUTILAK

IGOERAKO LIGAXKA

EMAITZAK

Urnieta A-Orioko	2-1
Euskalduna A-Beasain	1-1

ASTEBURUKO PARTIDAK

15:30	Beasain-Urnieta A / Lar, 27
16:00	BetiOna B-Euskalduna A / Lar, 27

KOPA

Billabona-Urnieta B	8-1
Euskalduna B-Lazkao	4-1

ASTEBURUKO PARTIDA

18:00	Idiazabal-Euskalduna B / Lar, 27
-------	----------------------------------

KADETE MAILA, MUTILAK

OHOREZKO MAILA

EMAITZAK

Tolosa-Euskalduna	0-0
-------------------	-----

ASTEBURUKO PARTIDA

11:50	Euskalduna-Martutene / Lar, 27
-------	--------------------------------

KOPA

EMAITZAK 4. MULTZOA

Urnieta-Kostkas B	1-3
-------------------	-----

ASTEBURUKO PARTIDA

09:00	Martutene B-Urnieta / Lar, 27
-------	-------------------------------

EMAITZAK 7. MULTZOA

Intxurre-Euskalduna	4-0
---------------------	-----

ASTEBURUKO PARTIDA

13:40	Euskalduna-Goierri A / Lar, 27
-------	--------------------------------

KADETE MAILA, NESKAK

EMAITZAK

Urnieta-Mutriku	1-1
-----------------	-----

ASTEBURUKO PARTIDA

09:15	Zarautz A-Urnieta / Ig, 28
-------	----------------------------

ESKUBALOIA

SENIOR MAILA, MUTILAK

EMAITZAK	
Legazpi-Urnieta	33-30
Leizaran-Aloña Mendi	24-29

SAILKAPENA

1	Egia	17 puntu
3	Legazpi	15 puntu
4	Urnieta	15 puntu
11	Leizaran	5 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

12:30	Egia-Leizaran / Ig, 28
16:45	Eibar-Urnieta / Lar, 27

SENIOR MAILA, NESKAK

EMAITZAK

Leizaran-Egia	25-29
---------------	-------

SAILKAPENA

1	Irauli Bosteko	22 puntu
3	Alaia B	15 puntu
4	Urnieta	12 puntu
7	Leizaran	9 puntu
8	Eibar	6 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

16:00	Munttarpe-Urnieta / Lar, 27
19:15	Legazpi-Leizaran / Lar, 27

JUBENIL MAILA, MUTILAK

7-12. POSTUEN TALDEA

EMAITZAK

Irun-Urnieta	25-20
Leizaran-Aloña Mendi	30-35

JUBENIL MAILA, NESKAK

EMAITZAK

Leizaran-Egia	20-27
Urnieta-Untzilla	27-27

KADETE MAILA, MUTILAK

EMAITZAK

Bera Bera Urdina-Urnieta	32-41
--------------------------	-------

FORU ALDUNDIKO TORNEOA

ASTEBURUKO PARTIDA

16:00	Leizaran-Egia / Lar, 27
-------	-------------------------

9-16. POSTUEN TALDEA

EMAITZAK

Ordizia-Leizaran	29-34
------------------	-------

KADETE MAILA, NESKAK

EMAITZAK

Leizan Horia-Ereintza	19-22
Urnieta-Ordizia	21-22
Izaro-Leizaran Urdina	21-21

ASTEBURUKO PARTIDA

16:00	Ordizia-Leizan Horia / Lar, 27
-------	--------------------------------

FORU ALDUNDIKO TORNEOA

ASTEBURUKO PARTIDAK

10:00	Alaia B-Leizaran Urdina / Lar, 27
10:00	Irun A-Urnieta / Ig, 28

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTIRALA 26

ANDOAIN Arretarako bulegoa
Oroituz, Andoainen eta Udalak Frankismoko biktimen arretarako bulegoa zabalduko dute.
Bastero, 10:30-13:00.

ANDOAIN Asanblada feminista
Asanblada feminista sortzeko hitzordua.
Urigain, 20:00.

ANDOAIN Musika
Elliot Murphy & Olivier Durand zuzenean arituko dira.
Bastero, 21:30.

ANDOAIN Musika
Talka, bertsiot talde akustikoa.
Irunberri, 22:30.

LARUNBATA 27

ESKUALDEA Mendi martxa
Erraustegiko goi-tentsioko linearen aurka mendi martxa. Irteerak Goikoplazatik 10:00etan. Urnietan, 10:30ean Zaldundegitik.
Azkorte, 11:30.

URNIETA Batzar orokorra
Denda Berri pentsiodun eta zaharren egoitzako kideen batzarra.
Denda Berri, 17:30.

ANDOAIN Pailazoak
Pirritx, Porrotx eta Marimotots: "Borobilean" ikuskizun berria.
Bastero, 16:30; 18:30.

ASTELEHENA 29

ANDOAIN Entsegua
Santa Ageda kantu erronda.
Ambrosia Olabide, 20:00.

ASTEARTEA 30

ANDOAIN Auzo batzarra
Udalak errefusa egoki sailkatzeko edukiontzi grisa ezarriko du. Txipduna eta irekiera mugatuko izango da. Hasiera batean, froga modura, hiru azuneetan egingo dute. Auzo bilerak deitu dituzte.
Alejandro Kalonge, 19:00.



PANTZART

URNIETA "Kolorez kolore" haur ikuskizuna

Kolorezko etxea sortzeko txotxongiloak, itzalak, leihoak edota gurpilak erabiltzen dira. Gainera ilargiak, barraskiloak, igelak, eta hipopotamo bat agertzen dira. Azkenean, haurrak taula gainean eraikitako etxean sartu ahal izan dira.
Urtarrilak 28, igandea. Sarobe, 17:30. 3 euro.

URNIETA Plenoa

Udalaren osoko batzarra.
Udaletxea, 19:00.

ANDOAIN Solasaldia

Literatur solasaldia: Juan Marse.
Bastero, 19:00-20:30.

ASTEAZKENA 31

ANDOAIN Hitzaldia

"A los pies del caballo" heroina Euskal Herrian hizpide duen liburuaren aurkezpena.
Irunberri, 19:00.

ANDOAIN Entsegua

Kaldereroen etorreraren prestaketa.
Berrozpe ikastetxea, 19:00.

ANDOAIN Entsegua

Santa Ageda kantu erronda.
Ambrosia Olabide, 20:00.

OSTEGUNA 1

ANDOAIN Auzo batzarra

Udalak errefusa egoki sailkatzeko edukiontzi grisa ezarriko du. Txipduna eta irekiera mugatuko da.
Olagain musika etxea, 18:30.

ZINEMA

ANDOAIN


BASTERO

Wonder wheel

Larunbata, 27:
Saiorik ez dago.
Igandea, 28:
19:30.
Astlehena, 29:
19:30, 22:00.

Rigoletto

Asteartea, 6:
Giuseppe Verdiren opera ikuskizuna diferituan ikusteko aukera, Londresko Royal Opera House antzokitik. Sarrera: 7 euro; egunean bertan 9 euro.
Bastero, 20:15.



URNIETA

SAROBE

Ovejas y lobos

Haur emanaldia.
Igandea, 4:
17:00.
Ballerina
Haur emanaldia.
Ostirala, 16:
17:00.

SINOPSIK



Wonder wheel

Zuz.: Woody Allen. **Herr.:** Estatu Batuak (2017). **Aktoreak:** Kate Winslet, Justin Timberlake, Juno Temple... **Iraupena:** 101 minutu.

Mafiari loturiko istorioa

Coney Island penintsula, 1950. hamarkada. Mickey Rubinek, jolas-parkeko salbatzaile lirainak, Humpty-en istorioa kontatzen du. Karruseleko operatzailea da Humpty, eta

Ginny, zerbitzari lanetan dabilen aktorea, bere emaztea da. Krisian daude, eta euren bizia gehiago korapilatzen da Humpty-ren alaba etortzen denean, mafiosoetatik ihesi.

Tres anuncios en las afueras

Zuz.: M. McDonagh. **Herr.:** Estatu Batuak (2017). **Aktoreak:** F. McDormand, W. Harrelson, P. Dinklage... **Iraupena:** 112 min.

Oscar sarietarako hautagaia

Ikusleak eta zinezaleak "Three Billboards Outside Ebbing, Missouri" filma famatu zuten,

Donostiako Zinemaldian eskaini zutenetik. Otsaileko lehen asteburuan, Basteron.

OSTIRALA 2

URNIETA Informazio gunea

Udalak parte hartze prozesu berria martxan jarriko du, eta horretarako informazio karpa ipiniko du.
Etxeberri plaza, 10:00-14:30.
Guria inguru, 17:00-20:00.

ANDOAIN Kaldereroen festa

Ondarreta ikastetxeak antolatuta, kaldereroen ospakizuna zabalduko dute herrian egingo duten kalejiraren bitartez.
Ondarreta, 13:00.

LARUNBATA 3

URNIETA Informazio gunea

Udalak parte hartze prozesu berria martxan jarriko du, eta horretarako informazio karpa ipiniko du.
Kiroldegiaren ataria, 10:00-14:30.

ANDOAIN Kaldereroen etorrera

Inauterien atariko hitzordua da kaldereroena. Kaletxikitik eta zaharren egoitzatik igaro ondoren, kanpalekua jarriko dute Goikoplazan. Ondoren, herrian barrena kalejira egingo dute.
Ontza elkarte, 17:00.

Caritas elkartearen oharra

Andoango Caritasak jakinarazi duenez, aurrerantzean ezin izango du Bazkardoko pabilioia erabili. Urtetan arropa, jostailuak, altzariak eta beste zenbait tresna jasotzeko eta antolatzeko erabili izan da biltegi hori. Orain, utzi beharrean dago. Elkarrekin esker ona adierazi nahi dio biltegia orain arte eskuzabal utzi dion familiari.



ZORION AGURRAK



URNIETA
Elaia

Gure neska txikia ari da handitzen. 2 urte beteko ditu urtarriaren 28an. Ondo pasako dugu zure bihurrieriekin. Muxuak!



ANDOAIN
Mikel

Gure etxeko mutikoak urtarriaren 28an 7 urte beteko ditu. Zorionak! Besarkada eta muxu handi bat zure etxeko guztien partetik.



ANDOAIN
Eider

Gure artista txikiak 6 urte beteko ditu datorren urtarriaren 30 ean. Zorionak maitia!! Ondo-ondo pasa ezazula eguna. Etxekoak.



ANDOAIN
Iker eta Haiz

Zorionak bikote! Urtarriaren 28an Ikerrek 5 urte eta 30ean Haizek 2 urte. Zuek bai bizipoza eta zoriontasuna!! Ikaragarri maite zaituztegu! Amatzu, aitatzu eta Izar.

TELEFONO ZENBAKIAK

ANDOAIN

Ataria: 943 300 830.
Udaltzaingoa: 943 300 819.
Gizarte Zerbitzuak: 943 304 343.
Osasun zentroa: 943 006 670.

URNIETA

Bertan: 943 008 000.
Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.
Ertzaintza: 943 538 840.
Osasun zentroa: 943 006 680.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 27 eta igandea 28
ARZALLUS: Aita Larramendi, 26.
943 300 913. Andoain.

URNIETA

Larunbata 27 eta igandea 28
ETXEBESTE: Elkano, 9. Behea
943 552 087. Hernani.
Gauetz, bi herrietan: Castilla.
943 55 29 41. Hernani.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak webgunean eta Aiurri astekarian. Oso erraza da, eta dohainik! Hiru bide dituzu:

www.aiurri.eus

Sar zaitetz "Zorion agurrak" atalean, eta fitxa osa ezazu. Mezua eta argazkia igotzen diren unetik, urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean. Ez dadila tamaina handiko argazkia izan. Tamaina editatzerik ezeean, zorion-agurra helarazteko erabili ezazu posta elektronikoa.

diseinua@aiurri.eus

Mezua bidali Aiurriko posta elektronikora, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Arantzibia 4-5, behea

Etor zaitetz bulegora. Andoainera. Telefono zenbakia: 943 300 732.

m
Mondragon
Unibertsitatea

**GURE
IKASLEEN
AHOTAN**

“Eredu dualarekin pila bat ikasten duzu”

Naiara Sarasua Zizurkilgoa da eta 21 urte ditu. Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza gradu 3. maila ikasten ari da Mondragon Unibertsitateko Bidasoako campusean, Irunen.



ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732 edo publizitatea@aiurri.eus

- Hileta egunean eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ /
- Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ

Eskelak Aiurriin: 90 euro

Zergatik aukeratu zenuen Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatean?

Betidanik izan dut argi Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza ikasi nahi nuela, eta aukeratzeko ordua heldu zenean, hainbat unibertsitate begiratzen egon nintzen. Mondragon Unibertsitateak atentzioa deitu zidan eskaintzen duen dual eredu dela eta, hau da, ikasi eta lan egiteko aukera izatea gradu osoan zehar. Bestalde, eskaintzen duen ikasketen metodologia ere interesgarria iruditzen zitzaidan, oso dinamikoa baita.

Nola balioetsiko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Ibilbide osoan zehar asko ikasi dut. Gauzak ez dira beti zuek nahi bezala ateratzen, baina bi urte eta erdi hauetan ikasi dut esperientzia guztiek dutela zerbait positiboa, ez dago esperientzia txarrik, uste duzun txar hori zure ikasketaren parte da, eta espero duzun baina gehiago laguntzen du. Ez da erraza ikasi eta lan egitea aldi berean, baina zure burua ezagutzen laguntzen dizu, nora heltzeko gai zaren eta nora heltzea gustatuko litzaidake jakiten. Azken finean, ikasitako guztia pixkanaka praktikan jartzen duzu eta ikasitakoarekin zure helburuak lortzen saiatzen zara. Balorazio ona ateratzen dut orokorrean.

Nola definituko zenuke Enpresagintzan jasotzen duzun ikasketen metodologia?

Lehen esan dudana bezala, dinamikoa. Bakar-kako proiektu eta talde lan asko egiten ditugu

kurtsuan zehar. Egunerokotasuna oso garrantzitsua da guztia egin ahal izateko, kurtsua luzea baita eta amaierarako gauza asko izaten baitira. Bestalde, garrantzia ematen zaio ez ikasketek bakarrik baizik eta jarrerari, eta horregatik izaten ditugu klase desberdinak non bai zure burua eta zure kideak ezagutzen laguntzen duten eta talde lanean erakusten dituzten, etorkizunerako baliagarria baita.

Unibertsitateetik zer da gehien gustatzen zaizuna?, Eta zerbait hobetzeko?

Lan egin ahal izateko ematen dituzten aukerak eta irakasleentzako gertutasuna. Onuragarria iruditzen zait ikasleentzat lehen kurtsotik gradua amaitu arte lanean aritzeko aukera izatea, horrek desberdintzen gaitu beste ikasleetatik. Bestalde, irakasleak beti daude zuek laguntzeko prest, bai akademikoki eta baita enpresarekin arazoren bat izanez gero, beti daude gainean. Zerbait hobetzeko behar bada kurtsuaren planteamendua izango zen, normalean lan entregak eta azterketak bat bestearen gainean izaten baititugu, eta gehiegizkoak izaten da kasu batzuetan.

Lanean ari zara ikasten duzun bitartean, Dual ereduari zure burua erabakitzen duzun?

Dual ereduari hasi nintzen, baina ez nengoen gustura enpresan eta beraz uztea erabaki nuen. Hala ere, ez nuen aukera galdu nahi izan, eta nahiz eta eredu akademikora pasa nintzen, aurreko urtean Basque Culinary Centerren aritu nintzen praktikak egiten uda bitartean. Aukera nuen kurtsu honetan jarraitu ahal izateko, bai-

na Erasmua egiteko asmoa nuen, utzi egin behar izan nuen. Kurtsu honi begira, uda aldera gustatuko litzaidake beste enpresa bat bilatzea, eta oraingo honetan datorren kurtsu osora luzatzea praktika horiek, ahal bada aurrerago egin nahi dudana zerbaitekin erlazionatua.

Zer nolako ekarpena egiten duzu eredu dualak?

Izugarri ikasten duzu, nire kasuan behintzat. Ez da erraza ikasketak eta lana batera eramatea, zama handia baita. Azkenean gradu bat ikasten ari zara, baina klaseak amaitzean lanera joan behar zara, azterketak eta lanak dituzu gainontzekoak bezala, eta etxera iristean ikasketek heldu behar diezu geratzen zaizkizun ordu gutxietan. Eguneroko lana zer den erakusten dizu eta heldutasuna ematen dizu, betebeharrak asko baitira. Bestalde enpresa batean hain gazterik lanean hasita balore ezberdinak ikasten dituzu eta bizitza erreala zer den ikusteko aukera ezin hobea da.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Printzipioz gradua amaitu eta lanean hasita gustatuko litzaidake, aukera desberdinak ikusteko. Badituz buruan enpresa batzuk, eta aurrean horri helduko nioke, benetan gustatzen zaidan ala ez ikusteko. Aurrerago, badituz beste ideia batzuk buruan, eta gustatuko litzaidake nire enpresa sortu ahal izatea, baina hori denborak esango du. Beste aukera master bat egitea izango litzateke, baina horri printzipioz ez diot buelta askorik eman. Datorren urtean hartuko dut erabakia.



AZKEN BERBA

OLATZ LASA
ERREDAKZIOTIK

Umorea

Herritarrak zabalago ezagutzeko bide eman dit kazetaritzak. Batzuetan, herritarrak beren lana, lorpenak edota esperientziak kontatu ditazun deitzen dizute; beste batzuetan, aldiz, ehiztari paperean sartu eta albiste bila ibiltzen gara kazetariak. Kasu honetan, Zabala sagardotegiko Luisekin geratu nintzen aurtengo sagardoari buruz hitz egiteko. Beno, hitz egiteko bakarrik ez, txotx ere egin genuen. Eta opari hiru sagardo botila ere bai. A ze pagotxa, nirea. Txikitari miresten zenituen pertsonaiak elkarrizketatzeko bide ere bada kazetaritza. Pasa den asten Pirritx pailazoa elkarrizketatu nuen telefonoz. Aparailu batek banatzen bagintuen ere, ahots hori ahaztea zaila da. "Borobilean" izeneko lan berriari buruz mintzatu ginen, eta pailazoan lanak zenbaterainoko irismena duen ohartu nintzen hauxe esan zidanean: "umorea guretzat bizitzari aurre egiteko modua da". Umorea. Hitz bakarrean laburbilduta bizitzari aurre egiteko gako nagusia.

AZKENA



laz axeriak Goiburu aldeko etxe eta baserrietan ibili ziren. Aurten, berriz, Sorabilla aldean. AIURRI

Inauterien iragarpena

Larunbat honetan, Axeri dantzarien Puska Biltzea biziberrituko dute Sorabillako auzoan. Axeriak eta txistulariak goizeko 08:00etik aurrera inauteri giroa zabaltzen ari dira, dantza eta umorea nagusi izanik

Xabier Lasa ANDOAIN
Inauteriak badatozela iragar-
tzeko baliagarri izan ohi da
Puska Biltzea. Haien atzetik
iritsiko dira Kaldereroak, otsai-

laren 3an, eta moztortzeko
egunak, otsailaren 8tik 11ra.
Andoainen eta Urnietan, larun-
batarekin ospatzen da inaute-
rietako egun handia.

Axeriak eta txistulariak, goizean
goiz, baserri baserri ibiliko
dira. Baserri atarrietan dantza
egin, eta ordainetan, baserri-
rrek otordutxo eskainiko die-

te. Aspaldiko ohitura da An-
doainen, urte luzez ahaztuta
izan zena. 2013an berreskuratu
zuten, Axeri Dantzaren aldeko
elkartearen eskutik. XXI. men-
deko puska biltzean urte bakoit-
zeko baserri-auzo ezberdinean
egin ohi da. Aurreko urteetan
Leizotzen, Buruntzan eta Goi-
burun izan ziren, eta aurtengoan
Sorabilla auzunearen txanda
izango da.

Axeriek San Juan eguneko
blusa gorria oinarritzat hartzen
badute ere, aurpegia zapiek
estali ohi dute. Eta axeri dan-
tzariak axeri moztortuak di-
renez, blusari axeri edo ardi
larruak eramaten dituzte soi-
nean. Zirikatzaile lanetan ari-
tzeko maskuriak, erratzak,
sardeak edota makilak hartzen
dituzte. Itxaferoen hotsen bidez,
baserri batera hurbiltzen ari
direla iragartzen dute.

Ekitaldia eguerdiko 12:30ean, Sorabillako plazan

Puska Biltzea ikusi nahi duten
andoaindarrei oharra: Goizetik
auzoko baserri gehienetan bi-
sitaldia egon ostean, eguerdiko
12:30-13:00ak ekitaldi berezia
egingo dute Sorabillako plazan.
Auzoko Jai Batzordeko kideek,
gainera, hamaiketako denent-
zat prestatuko dute. Dantzari-
ei, nola ez, eta baita ikuskizuna
ikustera hurbilduko direnei
ere.

Zertan gastatu aurrekontuko 125.000€?

parte hartuz

Aurkeztu zure proposamenak

Urtarrilaren 17tik otsailaren 11ra bitarte

INFORMAZIO KARPA

Otsailak 2,
ostirala:

- 10:00-14:30.
Etxeberri plaza.
- 17:00-20:00.
Guria ondoan.

Otsailak 3,
larunbata:

- 10:00-14:30
Kiroldegi kanpoaldean

